

1. Kontu egin lehiaketa egokitu egin nahi dugula parte hartzen duten pilotarien premia eta ezaugarrietara. Hainbat gauza egin daiteke, baina hauetako zein **EZ**?
 - a. Set bidezko joko-sistema
 - b. Bi sake izatea (falta erdia)
 - c. **1. fasea probintzia-mailan jokatzea**
 - d. Kantxaren zabalera estutzea

2. Gure eskolan, eskolako pilotari eta familientzako jarduerak egiten ditugunean, zer arlo ari gara jorratzen?
 - a. **Sustapena**
 - b. Pilotari berriak erakartzea
 - c. Aurrekoetako bat ere ez
 - d. a) eta b)

3. Pilota-eskolara gazteak leku bat baino gehiagotatik erakar ditzakegu, baina erakartze-kanpaina ikastetxeko gorputz-hezkuntzako orduetan egiten badugu, zer esparrutan ari gara?
 - a. Eskola / Kluba
 - b. Udal-programa
 - c. **Ikastetxea**
 - d. Nork bere kasako praktika

PRAKTIKAK: AKATSAK ZUZENTZEA

- Zestako ikasle batzuk pilota errebotetik nola ekarri ikasteko ariketa bat ari dira egiten. Oso pilota bizia darabilte. Huts egiten dute behin eta berriz; jokoa gehiegi eteten da. Begiralea hasia da haserretzen, ariketa ez delako ondo ateratzen ari eta pilotariak larri dabiltzalako pilota nondik nora doan asmatu ezinik eta keinu teknikoa ondo egin ezinik. Zer egin beharko luke begiraleak? Akatsak ikusita, zer egin?

PRAKTIKAK: INDARGARRIAK

- Trinketean, paleta argentinarrean sakea nola egin ari gara irakasten gure taldeari. Bada neska kadete bat orain arte larri zebilena pilotaren botearekin eta norantz sakatu asmatu ezinik, baina hasi da ikasten: botea ondo jotzen du, pilota ere ondo jotzen du, eta hasi da norabidea txukun ematen. Une horretan begiraleak nola jokatu behar du?
- Bai, ari da ikasten sakea egiten; baina errestatzen duen pilotaria bikain ari da, eta gure neska lekuz kanpo uzten du; batzuetan, errestoarekin tantoa ere egiten dio zuzenean. Sakatzen ari den pilotaria ondo ari da bere mailaren, ahalmenen eta ibilbidearen arabera. Hortaz, guk zer egingo dugu?
- Asteazkenean pilotari hori sakea lantzen aritu da. Iritsi da asteburuko partida, eta ez du faltarik egin (falta erdiren bat bai), asmatu du aurkariak estutzen, eta, azkenean, besteak beste horregatik, emaitza ona lortu dute. Ondo ibili da eta emaitza ona lortu dute; nola erabiliko duzu hori?